

Raul Alfarok eta Mariaje Barandiaranek jaso dituzte 2014ko bidelari eta bidelagun onenen Mintzanet Sariak

Gaur 18:00etatik aurrera banatu dituzte II. Mintzanet Sariak Donostiako Camino Doktoarearen liburutegian. Bertan, egitasmoaren zutabe diren bidelari eta bidelagunak bildu dira, baita, besteak beste, **Zigor Etxeburua**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria, **Joseba Erkizia**, HABEko zuzendaria, **Aizpea Goenaga**, Etxepare Institutuko zuzendaria, **Nerea Txapartegi** (Udal Gobernuako Euskara arduraduna, **Jon Zarate**, EHUko euskararen errektoreordea, **Arrate Illaro** Topaguneko ordezkaria, **Marian Astigarraga**, AEKren Gipuzkoako koordinatzailea, eta **Aitziber Gurutzeaga**, Bagera elkarteko arduraduna ere, proiektua babesten duten erakunde eta elkarteetako ordezkariak.



Oihana Maritorenak ongietorria eman dio ekitaldiari, eta segidan Maramara* taldeko zuzendari **Ritxi Lizartzak** Mintzanet egitasmoa azaldu du. “**Iaz, 2.552 saio sortu genituen, 550 pertsonak eman dute izena eta uneotan 250-275 inguruk parte hartzen dute. Beraz, bide arrakastatsua daramagula esan genezake**”, nabarmendu du Lizartzak.

Ondoren, Azpeitiko San Martin egoitzan bizi diren eta Mintzaneten bidelagun ari diren **Rocio Korta** eta **Mila Altunari** egindako bideoa proiektatu dute. Bi emakumeen esperientzia ezagutu dute bertaratuek, eta haien hitzek irribarrea eragin diete.



Berehala ekin diote sari banaketari; iaz saria eskuratu zuten Joserra Onandia bidelariak eta Jone Forkada bidelagunak Raul Alfarori (Zarrakaztelu, 37) eta Mariaje Barandiarani (Donostia, 57), eman dizkiete 2014ko bidelari eta bidelagun onenen garaikurrak, hurrenez hurren. Begoña Durruty irudigilea arduratu da oroigarrien diseinuaz.

Jarraian, agintariak liburuak banatu dizkiete bidelagunei, izan ere, haiek dira besteek euskara praktika dezaten euren denbora eskaintzen dutenak. Bidelariak, aldiz, euskara praktikatu nahi duten parte hartzaileak dira.

Mintzanet

Mintzanet 2012. urteko abenduan sortu zen eta pixkanaka hazten ari da. Euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzeaz gain, mugak gaintzea (distantzia, bakartze linguistikoa edota partaideek izan ditzaketen arazo fisikoak edo denbora eragozpenak), askotariko euskaldunen arteko elkar ezagutza sendotzea, eta azken batean, euskaldunen kopurua handitzea ditu helburu.